

# ***The Truman Show* pelikularen argi-ilunak: argiaren metaforaren aktualizazio bat**

Oihane Zuberoa Garmendia Glaría  
Bigarren Hezkuntzako irakaslea

Lan artistiko oro tradizio baten baitan kokatzen da eta ezinbestean tradizioarekin hartu-emanaren ondorioz sortzen da; dela tradizioari jarraipena emanez, dela tradizioa moldatuz edo dela tradizioa irauliz. Lan honen helburua da *The Truman Show* pelikulan aurki daitekeen tradizio luzeko metafora bat arakatzea eta haren eragina identifikatzea: argiaren metafora, hain zuzen ere, zeina egiaren eta jakinduriaren bilaketaren irudi izan den. Horretarako, lehenik eta behin, argiaren metaforaren hiru aurrekari historiko eta filosofiko mahaigaineratuko dira: antzinateko Greziako eta bereziki Platonen ikuspegia, iturri kristauak eskaini duen ikuspegia, eta, azkenik, ilustrazioaren ikuspegia. Horren ostean, filmaren nondik norakoa hobeto ulertzeko hainbat gako eskainiko dira. Gako horiek argiaren metaforaren erabilera desberdinak identifikatzeko baliatuko ditugu eta, aldi berean, baieztatu ahal izango da film hau tradizio luze bezain unibertsal baten oinordeko dela, hau da, ezjakintasunaren aurka eta egiaren alde borroka egiten dutenen istorioaren adibide bat dela, eta, beraz, argiaren metaforari jarraitutasuna ematen diola filmak.

GAKO-HITZAK: *The Truman Show* · Argia · Egia · Tradizioa.

## ***The Truman Show* lights and shadows: an actualization of the metaphor of light**

Every work of art is a part of a tradition, and consequently, it is created under the influence of that tradition, either continuing it, transforming it or stirring it up. This paper aims to analyse the metaphor of light as an image of truth and wisdom, which is one of the main topic of the western philosophical and literary tradition, in order to see how it is developed in *The Truman Show* film. With this purpose, first, I will analyse the way in which ancient Greeks (and mainly Plato), Christians and the Enlightenment understood this metaphor. Second, I will identify the different ways in which the metaphor of light appears throughout the film, so as to argue that this portraits of one of the most spread ideas in the western tradition, namely, the fight against ignorance and the quest for wisdom and truth.

KEY WORDS: *The Truman Show* · Light · Truth · Tradition · Wisdom.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.117.2021.2>

**Jasotze-data:** 2020-05-15 **Onartze-data:** 2020-10-30

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

«Egun on, eta gerora ez badugu berriz elkar ikusten, egun on, arratsalde on eta gabon!»<sup>2</sup>. Famatu egin den esaldi horrek ematen dio hasiera aztertzea xede dugun pelikulari. Truman Burbank protagonistak ageri da bere etxeko bainugelako ispiluaren aurrean (ispilua eta aldi berean kamera den horren aurrean), eta jarraian, etxetik atera bezain pronto, bizilagunak agurtzen ditu aipatu berri den eta faltsukeriatik gertu dagoen adeitasunezko esaldi hori esanez. Truman gizona alaia, zintzoa eta zuzena da, errutina ia karikaturizatu batean morroi, baina zoriontsu bizi dena, hasiera batean bederen.

Hain zuzen ere, pelikulak hori planteatzen du: aktorea ez den pertsona baten bizitzaren 24 orduko grabazioa. Truman da pelikula honetako protagonista, eta baita izen bereko show-aren protagonista ere. Hau da, Truman protagonista bikoitza dela esan daiteke, eta, beraz, ikusleria bikoitza duela. Alde batetik, *Trumanen Show*-a ikusten duten ikusleak daude (pelikulako gainerako aktoreak) eta, beste alde batetik, *Trumanen Show*-a pelikula ikusten dutenak (pelikularen ikusleak). Trumanek ez badaki ere, bere emaztea aktorea da, baita guraso eta lagunak ere. Horretan datza *Trumanen Show*-aren gakoa. Horrela dio show-aren sortzaileak hasierako eszenetako batean:

Emozio hutsalak transmititzen dituzten aktore eta aktoresez aspertu gara. Jada nazkatu gara suziri eta efektu berezietan. Nahiz eta Trumanek bizi duen munduak faltsutasunetik ezer eduki dezakeen, Truman bera ez da faltsua; ez dago gidoirik, ez ezkutuko jokaldirik ere. Ez da beti Shakespeare, baina egiazkoa eta purua da. Benetako bizitza bat da!<sup>3</sup>

Bada, filmean Trumanen bizitzaren zati bat kontatzen da; bizi duen errealitatearen (hots, fikzioaren) natura zein den sumatu ere egiten ez duen pertsona izatetik, benetan gertatzen dena jakitera iristen den pertsona bat izatera doan bizitza-tartea. Sylvia izeneko neska bati esker (Truman kameretatik «askatzearen» aldekoa dena) eta show-eko langileek (bai aktoreek, bai kanpotik dena kontrolatzen dutenek) egiten dituzten akats teknikoak direla medio, Trumanek egia ezagutzeko bidea marrazten joango da pelikulan zehar, azkenean bere helburua lortu arte.

Sarritan esan izan da pelikula honek gure gizartearen produktu diren *reality show*-en kritika ez ezik, bizi dugun espektakuluaren gizartearen kritika zorrotza egitea ere duela helburu (Gómez Montoro, 2010; Torregrosa eta Cuevas Álvarez, 2010; Ferrer, 2017), eta, hogeitau urte igaro badira ere, kritika horrek oraindik bizirik dirau. Egitate hori ukatu gabe, datozen orriok gaur egungo problematika baino zaharragoa, zabalagoa eta unibertsalagoa den gai bat jorratzea dute helburu (zeinak aldi berean bizi dugun errealitateaz hausnartzeko ere balio duen): egiaren bilaketa. Truman XX. mendeko

1. Zuzentzaileek egindako lana eskertu nahiko nuke, haien iradokizun zein zuzenketek testua aberastu baitute.

2. «Buenos días, y por si no nos vemos luego, buenos días, buenas tardes y buenas noches» [Euskarara itzulpena egileak egin du. Hemendik aurrerakoak ere egileak egindako itzulpenak dira].

3. «Estamos aburridos de ver actores comunicando falsas emociones. Estamos hartos de pirotecnias y efectos especiales. Mientras el mundo en que habita es en algunos aspectos falsificación, nada hay de falso en el mismo Truman. Nada de guiones, cartas ocultas... No siempre es Shakespeare, pero es genuino! Es una vida».

pertsonaia bada ere, egiaren bilaketa irudikatzen duen protagonista bat gehiago litzateke, Platonen haizulotik ihes egitea lortzen duen filosofoa lez edota ilustrazio garaian ezjakintasunetik eta fanatismotik ihes egitea lortu zuen herritarra lez.

Hain justu, egiaren bilaketa hori sarritan argiaren metaforarekin erkatu izan da. Datozen lerrotan, beraz, argiaren metafora egiaren bilaketa gisa aztertuko da, ikusteko ea zer puntutaraino ematen dion jarraitutasuna *Trumanen Show*-ak metafora horri. Horretarako, lehenik eta behin, 2. puntuan, argiaren metafora erabili izan duten hainbat aurrekari historiko eta filosofiko aurkeztuko dira: iturri grekoa lehenik, Platon ordezkari nagusitzat harturik; iturri kristauak bigarrenik, eta iturri ilustratua azkenik. Jarraian, 3. puntuan, filmaren hainbat aspektu aztertuko dira, zeinak gerora pelikularen eta argiaren metaforaren tradizioaren arteko loturak sortzeko balioko duen. Besteak beste, protagonisten izenak, leku-izenak, eszena esanguratsuak eta argiarekin zuzenean erlazionatzen diren elementuak aztertuko dira. Horren ostean, 4. puntuan, erlazionatu egingo ditut 2. puntuan mahaigaineratutakoa, hau da, argiaren metaforaren erabilera desberdinak (antzinatuekoa, kristaua eta ilustratua) eta 3. puntuan aztertutako elementuak (pertsonaien izenak, argiaren erabilera, eszena desberdinak...). Erkaketa-ariketa horren bitartez film hau argiaren metaforaren jarraipena dela esateko argudioak azalduko dira. Amaitzeko, ondorioetan lan osoan zehar jarraitutako bidea laburtuko da.

## 2. Argi-ilunak: argiaren metafora historian zehar

Badu hizkuntzak, euskarak kasu honetan, semantikoki kontrakoak diren bi termino bat eta bakarrean elkartzeko joera. Elkarketa hori ez da bi terminoen sintesi moduan ulertu behar; haratago, bi muturren arteko tentsioa irudikatzen da, sintesi aurreko momentua, preseski. Errazago ulertzen da adibideak emanez, nahiz eta, sarritan, errotiko antagonismo horri erreparatu gabe erabiltzen ditugun hitzok: *eztabaida* (ez eta bai), *harreman* (hartu eta eman), *beltzuri* (beltz eta zuri), *gorabehera* (gora eta behera), *ezbai* edota *tirabira* hitzak dira, besteak beste, aipatu den fenomenoaren adierazleetako batzuk. Hain zuzen, hitz horiek bi termino, bi estadio edo bi egoera kontrajarri batzen dituzte, baina esan den moduan, desberdintasun hori gainditu beharrean, desberdintasunak sortzen duen gatazka agerian uzten dute. Esate baterako, *eztabaida* hitzaren esanahia ez datza baietzaren eta ezetzaren arteko erdibidean, baizik eta, hain zuzen ere, erdibideko puntu horren absentsian; baiezkoren edo ezezkoaren norgehiagoka desagertzen bada, desagertu egiten da *eztabaida* bera ere.

Natura bereko hitzen artean koka dezakegu *argi-ilun* hitza ere, huraxe jatorriz euskalduna ez izanagatik ere, maiz erabiltzen dugun hitza baita. *Cinquecento*an du sorburua eta hainbat margolari flamenko eta italiarrek<sup>4</sup> erabili zuten teknika piktorikoari egiten dio erreferentzia. Izenak berak dioen moduan, argiaren eta ilunaren arteko kontrastea nabarmentzeko erabiltzen zen. Egiteko era horren xedea *argia* da: argiaren eta ilunaren jolasa erabiliz begirada arruntak erreparatuko ez litzkeen objektuetara arreta bideratzea.

---

4. Rembrandt eta Caravaggio izanik ordezkari nagusiak.

Nahiz eta argi-ilun hitzak margolaritza izan sorburu, pentsamenduaren historia interpretatzeko baliu daitekeen kontzeptua da. Hain zuzen ere, jakinduriaren borroka, edo hobeki esatearren, jakinduriaren eta ezjakintasunaren arteko norgehiagoka argiaren eta ilunaren arteko talka gisa *irudikatu* izan delako. Hurrengo atalean argiaren metaforak, zeina aipatu berri den norgehiagoka horren irudi den, antzinateko Grezian izan zuen garrantzia eta natura aztertuko dira, batez ere Platonengan ipiniz arreta.

## 2.1. Argiaren metafora antzinatean

Argiaren metafora, esan den moduan, filosofia bera bezain aspaldikoa da<sup>5</sup>. Esate baterako, Platonek argiaren metafora sarritan erabili izan zuen, jarraian erakutsi nahi den bezala. Lehenik eta behin, esan beharra dago, Platonen garaian «ikustea» ezagutzearen metaforatzat hartzen zela<sup>6</sup>: *horao* (*ὁράω*) aditz grekoak, zeinaren esanahi nagusia *ikustea* den, hautematea eta ezagutzea ere eman dezake aditzera. Are gehiago, Platonen epistemologiaren kontzeptu gakoetako bat, hots, *Ideia* hitzaren jatorri etimologikoa *horao* aditzean dugu (Chantraine, 1968: 455). Horregatik, Platonen *Ideia*, besteak beste, ikusten dena da, hots, ezagugarria dena. Are gehiago, *Politeia* (ik. 508 D eta 518 A) obran ere, ezagutza (*ἐπιστήμη*) ikusmenarekin erkatu zuen eta iritzia (*δόξα*), aldiz, itsukeriarekin.

Bide beretik, Aristoteles *De Anima* testuan ikusmenaren eta argiaren metaforak oso esanguratsuak dira ezagutza deskribatu eta azaltzeko orduan; besteak beste, Aristoteles tesietako bat da argirik gabe ezin dela (objektua) ikusi eta, beraz, ezta ezagutu ere<sup>7</sup>.

Aurrekoaren isla ezagunenetako bat Platonek bere *Politeia* obrako VII. liburuan eskaintzen duen *haitzuloaren alegoria* dugu. Besteak beste, bere ezagutzaren teoria azaltzeko erabili zuen alegoria da eta halaxe labur daiteke: imajina dezagun lehenik haitzulo bat eta bertan irudika dezagun gizatalde bat. Gizaki horiek jaiotzetik daude kobazuloan buruz eta eskuz loturik, eta ikus dezaketen gauza bakarra haitzuloko paretan handia da. Pareta horretan, noizbehinka, irudiak ageri dira eta gizaki horiendako iruditxo horiek dira benetakoak diren objektuak.

Halako batean, haitzulotik ihes egitea lortzen du presoetako batek eta orduan konturatzen da paretan ikusten zituen objektu horiek ez zirela beste batzuek mugitzen zituzten objektu errealean itzalak baizik. Ondoren, kanpora irteteko bidea topatu eta haitzuloaren itzal eta iluntasuna utzi eta argirantz abiatzen da. Hasieran

---

5. Are eta aspaldikoagoa ere bada. Ferrater Morak jasotzen duenez, metafora hau Persian eta Babilonian presente dago jada. Lehen zibilizazio horien arabera, argia bizitzarekin lotuko litzateke edo, zehatzago esanda, hildakoen osteko bizitzarekin, izarraren irudiaren bitartez. Tradizio mitiko horrek eragina izan zuen halaber lehen filosofo grekoengan, nahiz eta sarritan filosofo horien jarduna lehenengo tradizioengandik urruntzea izan. Beraiek argia printzipio goren, purifikatzaile eta egiazko bezala irudikatzen zuten (Ferrater Mora, 1951: 99).

6. Nabari dezan irakurleak geuk ere egunerokoan hala egiten dugula. Adibidez: «Ikusi duzu Txinan gertatu dena?» esatean ez gara ea begiratu duzun galdetzen ari, baizik eta horren berri izan duzun, ea ezagutu duzun galdetzen dugu.

7. Argiaren ideia honek modu nabarmenean eragin zuen teologia kristauan, aurrerago (2.2. atalean) azalduko den moduan.

eguzkiaren argiak itsutu egiten du, baina denborarekin ohitu egiten da argitasunera. Orduan konturatzen da kobazuloko itzalak eta itzal horiek sortzen zituzten objektuak baino errealagoak direla kanpoko objektuak, eta sua baino errealagoa dela eguzkiak sortzen duen argia.

Platonek ohartarazten digu gatibuek ikusten dituzten irudi horiek ez direla suaren argiari esker proiektatzen diren objektu batzuen itzala baino, nahiz eta pertsona horiek horretaz jabetzeko aukerarik ez izan. Hain zuzen ere, eguzkiaren argia egiaren metafora gisa irudikatu zuen Platonek: eguzkiaren argitik urrun bizi direnak, itsu bizi dira kobazuloan, iluntasunean eta egiatik urrun. Era berean, kobazuloko argia, suaren bitartez sortzen dena, faltsua da eta nahastu egiten ditu gatibuak.

Filosofian ez ezik, antzinateko Grezian ere oso ohikoa zen metafora da. Mitologia grekoan *egia* ere ikusmenarekin lotzen zen, argiarekin, hain zuzen. Adibide gisa gogora gaitetzen Tiresias igarleaz<sup>8</sup>. Hasiara batean, Tiresias pertsonaia itsua zela kontuan izanik, pentsa daiteke egia itsutasunak dakarren iluntasunarekin lotzen dela hemen. Baina hain zuzen ere, horretan datza metaforaren aberastasuna: ongi ikusteko eta egia ezagutzeko faltsua den, engainagarria den eta ilusiozkoa den argia alde batera utzi behar dela erakusten ari zaigu, kobazuloko suaren argia bezala. Hau da, ez dira nahastu behar argitasun fisikoa eta adimenezko argitasuna (Platonek ere desberdindu zituenak). Izan ere, Tiresiasen herrikideak zirenak, begiak irekirik zituztenak, sarritan ez ziren benetako argia (eta egia) ikusteko gai; Tiresiasek bakarrik ikus zezakeen egia<sup>9</sup>. Ildo beretik, horren adierazgarri da *Edipo Errege* tragedian Tiresiasek Edipori egozten dion itsutasuna. Azkeneko horrek Tebaseko zorigaitzen iturria zein den galdetu eta honako erantzuna jasotzen du:

Y puesto que me has echado en cara que soy ciego, te digo: aunque tú tienes vista, no ves en qué grado de desgracia te encuentras ni dónde habitas ni con quiénes transcurre tu vida [...]. La maldición que por todos lados te golpea, de tu madre y de tu padre, con paso terrible te arrojará, algún día, de esta tierra, y tú, que ahora ves claramente, entonces estarás en la oscuridad (Sofokles, 1982: 410-420).

Hain zuzen ere, Edipok, nahiz eta begiak izan, ez da egia ikusteko gai; ez da aita akabatu eta amarekin ezkondu eta seme-alabak izan dituela ikusteko gai. Itsua dena, hau da, Tiresias da benetako egia ikus dezakeena eta, aldiz, Edipo engainagarria eta faltsua den argia ikusten duena. Kobazuloko gizakiak lez, ez da bere itsutasunaren jabe eta pentsatzen du berak ikusten duen hori dela erreal. Beraz, Edipok eta Tiresiasek ere, argitasunaren eta iluntasunaren arteko jolasa erakusten digute, jakinduriaren eta ezjakintasunaren arteko talka irudikatuz.

## 2.2. Argiaren metafora kristautasunean

Argitasunaren metaforaren beste iturri bat kristautasunean aurki genezake. Esan beharra dago, lehenik eta behin, kristautasunak garatu duen argitasunaren metaforak iturri greziarretik edan zuela eta, beraz, tradizio luze baten bilakaera gisa

8. Tiresias greziar mitologiako pertsonaia da: Tebas hiriko igarle itsua zen eta mitologiako pasarte eta bertsio askotan ageri da: Homeroren *Odisean*, Ovidioren *Metamorfosian* edota Sofoklesen *Edipo Errege* tragedian, besteak beste.

9. Halaber, ohar dadin irakurlea greziar guztien irakasle zena ere, Homero, itsua zela.

aztertu behar da. Hala ere, baditu bereizgarri diren hainbat alderdi. Izan ere, ideia, istorio edo sinbolo orok bizirik iraun behar badu, garai berrietara egokitu beharra du (Aparicio, 2013), eta horixe gertatu zen argiaren metaforarekin garai kristauan.

San Agustín Hiponakoa izango litzateke argiari erreferentzia egin zion lehen pentsalari esanguratsuenetako bat. Hark Jainkoa gorputzik gabeko etengabeko argi lez deskribatu zuen, zeinari esker ikus genezakeen Jainkoak erakutsi nahi diguna (ik. San Agustín, 1963). Halaber, pasarte askotan berdintzen ditu Jainkoaren egia eta argia (1963: 246, 284). San Agustínengan ere, iturri grekoetan bezala, benetako argia ez da berehalakoa, zentzumenen bitartez jasotzen dena:

Y sabiendo esto, no lo sabemos ni por los ojos, ni por los oídos, ni tampoco por ningún sentido, del que no carecen las bestias; pues no es de creer que ellas conozcan que no se percibe la luz por los oídos ni los sonidos por los ojos, porque estas cosas no las discernimos sino mediante la atención racional y el pensamiento (1963: 258).

Hala ere, kristautasunean, orokorrean (San Agustínengan ere agerikoa dena), argiaren metaforak beste zentzu bat hartzen du. Izan ere, ez da soilik egiaren baliokide; iturri kristauetan ageri den argiaren metaforak argia bildu eta zaindu egiten duen eite gisa ere deskribatzen da. Horrela, argia fededuna zaindu, babestu eta haren hobe beharrez arduratzen denaren baliokide da: Jainkoarena, hain zuzen ere. Argiak, Jainkoaren irudi dena, lagundu egiten du sinestuna, lasaitu eta orientabidea eman.

Beraz, esan daiteke argiaren eta iluntasunaren dikotomia presente dagoela iruditegi eta testu kristauetan, baina jakinduriaren eta ezjakintasunaren irudia izateaz gain, argiaren eta ilunaren arteko dikotomiak bizitza sainduaren (edo jainkotiarren) eta bizitza bekatiaren dikotomia ere errepresentatzen du, jarraian datorren testuan irakur daitekeen moduan:

¡Ay de los que se retiran de tu luz y se adhieren dulcemente a su propia oscuridad! Como si te volvieran las espaldas, hacen asiento en las obras de la carne, como en su propia sombra, y, sin embargo, aun lo mismo que allí les causa placer lo reciben del esplendor de tu luz. Pero las sombras, cuando se aman, causan más debilidad en los ojos del alma y la hacen más incapaz de gozar de tu vista, por lo cual tanto más y más se hunde el hombre en las tinieblas cuanto con más gusto sigue todo aquello que más dulcemente acoge su debilidad; y de aquí que comience a no poder ver lo que es el bien sumo y a no poder considerar como un mal lo que engaña su imprudencia, o seduce su inteligencia, o le atormenta en su esclavitud, bien que todo esto lo padezca en justo castigo de su perversión, y no pueda ser nunca un mal aquello que es justo (1963: 305).

San Agustín aipatzearekin batera manikeismoa ere aipatu beharko litzateke argiaren metaforaren bultzatzaile garrantzitsutzat (San Agustínengan eragin handia izan zuelako). III. mendeko doktrina erlijioso dualista horren arabera, munduan jatorrizko bi substantzia existitzen ziren: argia (ongiaren eta egiaren irudi) eta iluntasuna (gaizkiaren eta faltsukeriaren irudi). Manikeistek uste zuten denbora eta espazioa sortu zirela, hain zuzen, bi substantzia horiek talka egin zutenean; haien

patua, beraz, argia eta iluntasuna berriz ere bereiztea izango litzateke. Hemen ere, argia eta iluna nahasirik ageri dira borrokan.

Bestalde, Eskritura Santuetan ugariak dira argiari egiten zaizkion erreferentziak: Isaias IX pasartean hala ageri da: «Ilunpetan zegoen herriak argi handia ikusi du. Itzalpean bizi zirenei argiak egin die distira». Antzeko ikuspuntua ageri da San Joanen Ebanjelioan (I, 1-9). Kasu horretan, Jainkoa bizitza gisa deskribatzen du, eta bizitza gizakion argizat. Honela zioen: «Hasieratik zen biziaren hitza, entzun eta geure begiz ikusi duguna, begiratu eta geure eskuz ukitu duguna, iragartzen dizuegu [...] Jainkoa argia da, eta berarengan ez da inolako ilunik». Halaber, San Mateoren Ebanjelioan (VI, 22, 23) honela irakur daiteke: «Bergia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Bergia onik baduzu, zure gorputz osoa argitan ibiliko da. Bergia gaixo baduzu, ordea, zure gorputz osoa ilunpetan ibiliko da. Beraz, zeure barruan argi behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!» Azkenik, Efesoarrei Gutunetan (V, 8-9) honela irakur daiteke: «Jokatu, beraz, argiaren partaide zaretenez; argiaren fruitua ongina, zintzotasuna eta egia oro dira».

Iturri kristaua aztertu ostean, hainbat ondorio atera daitezke. Besteak beste, greziarrentzat nola kristaudentzat ere argia egiaren eta jakinduriaren pareko zen; egiatik eta argitik aldentzen zenaitsu eta ezjakin izango zen. Hala ere, berezitasunak ere nabarmenak dira: kristaudentzako argia ezagutzaren eta egiaren irudia izateaz gain, ezagutza eta egia hori Jainkoarengandik dator eta Jainkoarengana eramaten du fededuna. Halaber, argiaren eta ilunaren arteko talka dimentsio moralera ere zabaltzen da, bizitza eredugarriaren eta bizitza bekatariaren arteko talka irudikatuz. Azkenik, San Agustinen idatzietan ere argiak Aitaren, Jainkoaren irudia deskribatzen du, zeinak fededunak babestu eta bide onetik joaten laguntzen dien.

### 2.3. Argiaren metafora modernitatean

Modernitatearen ikur ere izan zen argia, baina, paradoxikoa badirudi ere, autoritate kristauari aurre egiteko erabili zen lantzen ari garen metafora. Adibide gisa, Descartesek eta Leibnizek esandakoak ekarri ditut gogora: Descartesentzat argiak betiereko egiak bereizten laguntzen zuen (1990: 43) eta Leibnizek zioen «*lumière naturelle*» delakoak matematikako axiomen egia zedarritzen laguntzen zuela (Leibniz Ferrater Moran, 1951: 102). Edonola ere, zalantza izpirik gabe, argiaren metafora ilustrazioan osatu eta borobildu zen.

XVIII. mendearen erdialdean frantziar filosofo talde batek eman zion hasiera ilustrazioaren proiektuari. Besteak beste, Voltaire, D'Alembert, Diderot, Rousseau eta Montesquieu<sup>10</sup> izan ziren ordezkari nagusiak eta Entziklopediaren proiektuan egikaritu zuten euren programa filosofikoa. Nolanahi ere, nahiz eta Frantzia jaio, laster zabaldu zen Europa osoko beste bazter batzuetara: Eskoziara (Adam Smith eta David Hume izanik ordezkari nagusiak), Alemaniara (*die Aufklärung* izenarekin ezagutu izan dena eta Moses Mendelssohn, Christian Wolff, G. E. Lessing eta

---

10. Azken urteotan gero eta maizago aipatzen badira ere, ilustrazioak ere izan zituen ordezkari andrazkoak, zeinak buru-belarri aritu ziren proiektu ilustratua gauzatzen: Olympe de Gouges, Madame de la Fayette, Madame de Condorcet, besteak beste.

Immanuel Kant izanik ordezkari nagusiak) eta, modu lausoago batean, Espainiara, Portugalera, Italiara eta baita Amerikako hainbat lurraldetara ere.

Ilustrazioaren ordezkarien testuetara jotzen bada, agerian geratzen da argiaren eta iluntasunaren arteko norgehiagoka. Volneyk (2005: 103) honela zioen: «Horrela, gizakia, bere itsutasunean, bere buruari kateak ezarrita, babesik gabe entregatu zaio ezjakintasunari eta pasioei betirako». Bere kasuan, ezjakintasuna itsukeriarekin eta are, preso izatearekin erkatu zuen. Ildo beretik, Kantek ere *Zer da Ilustrazioa?* testuan kanpoko autoritatearekiko siniste itsua ekidin beharko litzatekeela aldarrikatu zuen, norik bere kabuz pentsa zezan, ilustratua den orok iluntasunari beldurrik ez ziola izan behar adieraziz (2005: 13).

Proiektu honi eman zitzaion izenaren izana hobeto uler dadin, Ilustrazioak Antzinako Erregimena bertan behera uzteko ahalegina egin zuela azpimarratu behar da, horretarako *arrazoiaren* nagusigoa aldarrikatuz. Izan ere, Diderot eta gainontzeko entziklopedisten helburua *obskurantismo erlijiosoa* garaitzea zen, zeinaren sinonimotzat zituzten ezjakintasuna, mozolokeria, haurkeria eta intolerantzia. Izan ere, *Stanfordeko Entziklopedian* (2017) jaso bezala, ilustratuek uste zuten Ilustrazio aitzineko egitura politiko eta soziala, mito eta misterio erlijiosoen gainean eraikia izan zena, eraitsi beharra zegoela. Ilustratuen esanetan, hura tradizio ilun eta ulergaitza<sup>11</sup> zen heinean, arbuia egin beharra zegoen eta argiago, justuago eta ulergarriagoa izango zen sistema politiko, sozial eta epistemologikoa eraiki beharra zegoen. Eraikuntza ilustratu horren funtsa arrazoa izan zen, eta arrazoiaren ondorio ziren zientzia eta filosofia.

Iraultza sozial horren ordezkari nagusiak filosofoak izateak eta proiektu nagusia Entziklopedia izateak ez du esan nahi ezagutzaren esparru isolatura mugatu zenik haien jarduna: hau da, ez ziren mugatu ezagutzaren azterketa arrazionala egin eta jasotzera. Euren testuinguruan modu aktibo batean parte hartu zuten<sup>12</sup>, horietako askok kartzela zigorra jasoz, Diderot kasu.

Beraz, Ilustrazioan argiak arrazoimenarekin, egiarekin, justiziarekin eta, finean, Frantziako Iraultzaren idealekin bat egingo luke, subjektuaren autonomia bultzatuz eta huraxe lortzeko bide bakarra dela adieraziz. Argiaren metaforaren aldaera kristauan ez bezala, ilustratuentzat argia ez da babesten gaituen autoritatearen pareko, are gehiago, argiaren eta, beraz, egia-iturri horren aurka altxatuko dira. Finean, argiak eta arrazoiak garai dezaten borrokatu egin behar dela ere erakutsi ziguten garai hartako pentsalariek.

---

11. Jatorriz «obscure tradition». *Obscure* hitzak, iluntasuna ez ezik, ulergaitz, zail edo lauso ere adierazi nahi du. Kasu honetan, berriz ere iturri etimologikoa landu bide den metafora indartzera dator: iluntasuna zailtasun edo ulergaitzasunarekin lotzen den gisa berean, ilustratuek defendatuko duten argia iluntasuna ez ezik, iluntasun horrek dakarren ulergaitzasuna ere garaitzera dator.

12. Esan berri denak gaizki-ulertuetara eraman dezake irakurlea: honekin ez dut esan nahi idazte hutsak arriskurik edo errotiko aldaketarik ez dakarrenik. Ezta gutxiagorik ere: Dideroten kartzelaldi desberdinak Entziklopediaren ustezko propaganda-izaeraren ondorio izan ziren; Voltairek erbestea ezagutu zuen eta Montesquieuk Holandan argitaratu behar izan zuen *Pertsiar Gutunak* zentsura ekiditearren.



Orain arte lan honetan laburki azaldu nahi izan da argiaren metaforaren ibilbide xume bat, pentsamenduaren historian zehar hartu dituen adiera eta formulazio desberdinak aztertuz. Hain zuzen ere, nahiz eta azterturiko hiru ikuspegi horiek argiaren metafora modu desberdinean eta interes desberdinarekin erabili, hirurek dute zerbait komunean: desberdintasunak desberdintasun, oro har argitasuna egiarekin eta jakinduriarekin erkatu dute, eta iluntasuna, berriz, ezjakintasun edo ulergaitzasanarekin. Halaber, itsukeria edo argi faltsu eta engainagarriak ere aztertu dira, zeinek gizakiari ekidin dioten benetako ezagutza lortzea, eta horren aurka egiteko aldarria egiten dute.

Finean, kobazulo iluna eta itsukeria pentsamenduaren kartzela izan dira eta argia (ezagutza, egia) da ezjakintasunaren kartzelatik ateratzeko bide bakarra<sup>13</sup>. Hori horrela, argia jakinduria eta ezagutzaren metafora den gisa berean, kobazuloak eta kartzela ezjakintasunaren iruditzat hartu dira<sup>14</sup>. Zenbait filosofo edo pentsalari tentsio horren jabe izan dira, hau da, jakinduriaren eta ezjakintasunaren arteko norgehiagokaz, eta haien lana izan da itsukeria (edo ezjakintasuna) hori, zeina gizartean zabaldua dagoen, salatzea, arbuizatzea eta gizakiari begiak irekitzeko eta benetako argia (eta, beraz, ezagutza) bereganatzeko adorea ematea, edota bidea erakustea. Izan ere, bai Platon bai ilustratuak (momentuz kristauak alde batera utziko ditugu) saiatu izan dira euren gizartea lokartzen zuten mekanismoen aurka borrokatzen. Gisa berean, pelikula honek ere gure garaian analgesikoak diren eta benetako ezagutza kritikoa oztopatzen duten hainbat fenomenoren salaketa aurkezten du, hala nola telezaborra, etengabeko publizitate-erakustaldia, pantailek sortzen duten itsukeria...

Beraz, ondoriozta liteke, aspaldikoa izanagatik ere, metafora honek gaurkotasun handia izaten jarraitzen duela, ugariak baitira argiaren eta ilunaren arteko norgehiagoka irudikatu izan duten literatur lanak eta filmak. Jarraian erakutsi nahi da testu honek iruzkintzen duen filma tradizio horren baitan koka daitekeela eta, beraz, argiaren metaforari ere eusten diola orain arte ikusi dugun modu berean. Horretarako, hainbat eszena eta pelikulako beste hainbat elementu hizpide hartuz pelikulan zehar argiari egiten zaizkion erreferentziak aztertuko dira.

### **3. Pertsonaia, eszena eta beste hainbat xehetasunen azterketa**

Landu bide den metaforaren eragina pelikulan aztertzen hasi aitzin, komeni da pelikulari buruzko hainbat zertzelada aipatzea. Lehenik eta behin, 3.1. atalean, pelikulan ageri diren pertsonaien izenen eta leku-izenen aukeraketaren inguruan jardungo naiz; izan ere, izenak ez dira ausaz aukeratuak izan: pelikularen garapena

---

13. Euren pentsamenduagatik arriskutsuak izan diren gizon eta emakumeak kartzelako iluntasunera zokoratuak edota heriotza-zigorera kondenatuak izan dira. Egitate horrek ere, nolabait, indartu egiten du azaldu bide den metafora. Buru-argitasuna, zirikatzaileegia eta apurtzaileegia zenean, iluntasunera zokoratuak izan da. Filosofiaren eta zientziaren ikono garrantzitsuenek pairatu zuten aipatutako zigor-iluna: Sokrates, Giordano Bruno, Galileo Galiei, Hipatia...

14. Hemen askotan, ez da irudi metaforiko hutsa izan, asko izan baitira ezagutzaren alde borrokatzeagatik kartzela eta iluntasunera zokoratuak izan direnak: ezagutzak, naturaz, kobazulotik at bizi eta elkarbizi nahi izan du. Eta filosofiarena izan da, askoren ustez, kartzela, kobazuloa edota iluntasun hori atzean uzteko eginbeharra.

ulertzeko eta pelikulak planteatzen dituen hainbat gai aurkezteko parada eskaintzen dute. Jarraian, 3.2. atalean, pelikulako hainbat eszena aztertuko dira, zeintzuetan argiak paper garrantzitsua jokatzen duen. Azkenik, 3.3. atalean, pelikula osoan zehar gako den elementu bati erreparatuko zaio: ispiluari, hain zuzen. Elementu horren natura eta pelikulan duen garrantzia aztertuz, protagonistak argirantz, hau da, egiarantz egiten duen bidaia marrazten joango gara.

### 3.1. Izenen aukeraketa

Pelikulan zehar hainbat hitz-jokoz jabetu daiteke ikuslea eta, kasu askotan, egikaritu egiten da euskal esaera zaharrak dioena: *izenak egiten du izana*. Izan ere, aspaldikoa den errekurtsio literario bat erabiltzen da pelikulako protagonisten izena aukeratzeko orduan, pertsonaien izen-deituretan eta leku-izenetan pertsonaia zein leku horien berezko ezaugarriei keinu egiten zaielarik<sup>15</sup>.

Protagonistaren izena Truman Burbank da. Deitura aipatuko da lehenik eta behin. Burbank Kaliforniako hiri baten izena da eta gaur egun zine- eta telebista-konpainia handien egoitza da. Besteak beste, Warner Bros. Entertainment, The Walt Disney Company, Nickelodeon, DC Entertainment eta Universal Studios bertan kokatzen dira. Beraz, ez da harrizkoa *Trumanen Show*-aren gidoilariak abizen hori aukeratu izana telebistan jaio den lehen umeari abizena jartzeko<sup>16</sup>. Abizenak gure arbasoen informazioa eta lotura adierazten duenez, Burbank abizenarekin Trumanen jatorria adierazi nahi izan dute, haren existentzia telebistari eta *reality show*-ei estuki loturik dagoelako. Noski, Trumanek ez daki Burbank izeneko hiria existitzen denik eta are gutxiago AEBn bertan ekoizten denik zine- eta telebista-produktu gehien, baina ikusleak bai, edo behintzat jakin dezake.

Truman izenaren aukeraketa ere ez da arbitrarioa izan. Izan ere, Trumani eman zaion izenak zuzen-zuzenean deskribatzen du protagonistaren tragedia. Izan ere, Tru(e)manek (ingelesezko 'true' egia eta 'man' gizona) 'egiazko gizona' esan nahi du. Alde batetik, pentsa liteke True-man izena duela, telesailean agertzen diren aktore guztien artean bera delako egiazki jokatzen duen bakarra, hau da, *pertsonaia* ez den bakarra delako. Aktorea ez den bakarra bera da; paper bat betetzen ez duen bakarra, alegia (gogoratu «Sarrera» atalean jaso diren Christophen hitzak). Hala ere, beste irakurketa bat ere iradoki daiteke ironia moduan uler daitekeena; izan ere, Trumanek egiazkotzat jotzen duen errealitatea faltsutasunetik gertuago dago egiazko bizitzatik baino. Hau da, Trumanen bizitzak gutxi du *true*-tik, edo behintzat ikusleari hausnarketa sorrarazteko zalantza nahiko ematen dizkio. Hain zuzen ere,

---

15. Platonen *Gorgias* obran Polo (zeinak 'moxal' esan nahi duen) izeneko pertsonaia moxal baten moduan indartsua, energikoa eta haserrekorra da. Hain urrutira joan gabe ere, irakurleak aski ezagunak izango dituen beste pertsonaia literario batzuk ere gogora ditzakegu: adibidez, Nemo kapitainak (Jules Verneren *Hogei mila legoako bidaia itsaspetik* liburuko protagonistetako batek) mundutik desagertzea du helburu itsaspekoan bizi denetik. Hau da, gizartearen begietan, Nemo kapitaina ez da ezer (*nemo* hitzak latinez ezereza nahi du esan). Halaber, R. L. Stevenson-ek *Jekyll doktoarearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia* liburuan teknika bera darabil. Izan ere, Hyde pertsonaia ezkutuan dabilen gizona da, eta ingelesez *ezkutatu* aditza *hide* da.

16. Izan ere, Truman umezurtza da; abortatzeko asmoa zuen emakume bati umea erosi zion ekoiztetxeak eta, beraz, beraiek jarri zioten izena.

pelikulak planteatzen duen puntu garrantzitsuenetariko bat da. Jolas ironiko horren harira, honela dio Gilabert irakasleak:

Es cierto que la audiencia del Show de Truman podría practicar —y de hecho practica— una especie de ironía trágica griega en vista de que los espectadores saben cuáles son los límites del protagonista y las trampas en que muy probablemente caerá (Gilabert, 2004: 8).

Beste pertsonaia bat Christoph da, *Trumanen Show*-aren zuzendaria eta gidoilari nagusia. Hark diseinatu du Trumanen bizitza eta hark kontrolatzen du Seaheaven, Truman bizi den hiria. Hain zuzen ere, Christophek Trumanekin egiten duen horixe da Kristok Adanekin egin zuena. Gizon bat sortu eta Paradisu bat eskaintzen dio, non arazo edo arriskurik edukiko ez duen. Halaber, kontakizun biblikoan bezalaxe, kreaturak kreaizailearen legea hausten du emakume batek bultzatuta. Trumanen kasuan, Sylviak<sup>17</sup> beteko luke Evaren papera, berak erakutsiko baitio *paradisutik* irteteko bidea<sup>18</sup>.

Azkenik, Truman bizi eta hazi den hiriaren izena aipatu beharko litzateke: Seahaven. *Sea* alde batetik eta *bestetik*, *haven*. Nabari dezan irakurleak zeinen gertu dagoen *haven* hitza *heaven* hitzetik, hau da, ingelesezko paradisu hitzetik. Izan ere, antzeko zerbait da Seahaven: arriskurik gabeko mundu idiliko bat. Edeneko lorategia bezalaxe, Trumanen neurrira diseinatutako hiria guztiz mugatua eta itxita dago, nahiz eta Trumanek pentsatu mugarik gabeko mundu zoriontsu batean bizi dela<sup>19</sup>. Christophek gerora aitortuko dion moduan, Seahaven kreaizaileak bere kreaizioari sortu dion mundua da; gaixotasunik, arriskurik eta gezurrik gabeko mundua:

Entzudazu, Truman: kanpoan ez duzu hemen baino egia gehiago aurkituko: gezur eta gaixotasun berberak aurkituko dituzu bertan. Baina nik sortu dizudan mundu honetan ez duzu zertan arduratu. Zeure burua zuk zeuk baino hobeto ezagutzen dut nik<sup>20</sup>.

Filmeko pertsonaien izenek, beraz, pelikulak planteatzen dituen eta aztertu bide diren hainbat gai aurkezten dituzte: lehenik, Trumanen izenak errealitatearen eta fikzioaren arteko muga edo, beste era batera esatearren, egiaren eta faltsuaren arteko jolasa aurkeztu digu. Bigarrenik, izen askok eragin kristaua agerian uzten

---

17. Iradoki nahiko nuke Sylviaren izenaren aukeraketaren atzean ere arrazoi bat egon daitekeela. Izan ere, Sylvia kanpoko mundutik dator, Trumanen «zibilizaziotik» kanpo dago, eta gogora dezan irakurleak Sylvia hitzak *basa* esan nahi duela. Nolanahi ere, oinarritzapen teorikorik ezean, iradokizun hutsean geratzen da ideien asoziazio hau.

18. Sylvia da Trumanen askapenaren alde borrokatzen den ikusleatiko bat. Horretarako, programan infiltratzen da eta Trumani egia aitortzen dio. Hori esan eta gutxira, programako zuzendariak Sylvia show-etik kanporatu behar dutela agintzen du eta Truman eta Sylvia musu ematen ari diren bitartean, Sylvia eramaten dute, Trumani esanez burutik jota dagoela eta halako txorakeriak kontaktzen dituela. Trumanek sinistu egiten badu ere, pelikula osoan zehar saiatuko da Sylvia aurkitzen.

19. Irakurleak bere buruari galde diezaioke ea Trumanek zergatik inoiz ez duen kupularen muga antzeman. Erantzuna da gidoilariak itsaso bat eraiki zutela eta bertan Trumanen aitaren papera egiten zuen aktorea «itotzen» dutela Truman txikia denean; ordutik urari fobia garatu zuen eta horregatik inoiz ez zen kupularen mugetara gerturatzen.

20. «Escúchame, Truman: no hay más verdad ahí fuera que en este mundo que he creado para ti. Las mismas mentiras, mismas enfermedades. Pero en mi mundo, tú no tienes que temer nada. Te conozco mejor que tú».

dute: izan ere, paradisuaren naturaren inguruko hausnarketa mahaigaineratu da Seahaven hiriaren izenarekin, edota kreatzailearen izenak, hau da, Christoph izenak, iturri kristauen oihartzuna ere gogorarazi digu, kreatzailea argi- eta babes-iturri bezala irudikatuz.

### 3.2. Argi artifizialaren presentzia filmean zehar

Pelikularen hasieran zerbaitek harritzen badu ikuslea Truman bizi den hiriaren argitasuna da. Izan ere, Trumanen errealtatea, Trumanen «egia», finean, argitasunez, garbitasunez eta babes-sentsazioz osaturik dago. Alabaina, argi hori artifiziala da. Ikuslea horretaz lehen eszenetan konturatzen da, Truman etxetik atera bezain pronto estudioko foku bat amiltzen delako bere ondora. Truman, ordea, ez da horretaz jabetzen eta ez dio bere buruari galdetzen zergatik erori ote den foku bat zerutik: irratia piztean irratian entzuten duen azalpenarekin konformatzen da, inolako zalantzarik egin gabe<sup>21</sup>, aurrerago gehiago zehazten saiatuko garen moduan, haitzuloko presoak suaren argia artifiziala dela konturatzen ez diren bezalaxe. Nahiz eta faltsua izan argi hori, Truman ez da konturatzen; itsu-itsuan onartzen du errealtatea, haren naturaz itaundu gabe.

Seahaveneko argiaren artifizialtasuna eta, beraz, faltsutasuna, beste eszena batean egiten da nabaria. Eszena hori amaiera aldean da eta jada Truman konturatu egiten da argi artifizial horrek egia ezkututzen diola. Trumanek Seahavenetik ihes egitea lortzen du bere bizitzako 24 orduak (baita lo dagoenean ere!) grabatzen dituzten kameran irismenetik aldentzea lortzen duenean. Christoph konturatzen denean, show-eko aktore guztiak Trumanen bila hasteko eskatzen du, baina, gaua den heinean, oso zaila egiten zaie protagonista aurkitzea. Horregatik, Christopheh muturreko neurri bat hartzea erabakitzen du: Seahaveneko eguzkia artifiziala denez eta, beraz, gaua eta eguna ere artifizialki kontrolatzen dituen, gauaren erdian platoko argiak pizarazten dituzte, «eguzkia pizten» da, alegia, eta gau itxia desagertzen da, ageriko modu batean erakutsiz bizitza kupula barruan artifiziala eta guztiz gidatua eta kontrolatua dela.

Bi eszena horiek aztertu ostean, ondoriozta dezakegu argi artifiziala ez dela ezagutzarekin erkatzen; are gehiago, egia bera estaltzeko balio izan duela: argitasuna faltsukeriarekin eta ilusioarekin lotzen da, ez benetako ezagutzarekin. Nahiz eta ikusleak, bai pelikula barrukoak, bai pelikula kanpokoak, konturatzen garen argi hori faltsua dela, Trumanentzat argi hori errealtatearen eta egiaren baliokide da, hasiera batean bederen. Hain justu, argi-ilun jolas baten aurrean gaude: aurrerago zehazten saiatuko garenez (4.1. atalean), haitzuloren alegorian gertatzen den operazio bera dugu (baita Edipo eta Tiresiasen pasarteetan gertatu bezala edota San Agustinek bere testuetan adierazi bezala ere): argi bat dago, zeina ez den benetakoa, baizik eta benetakoaren kopia desitxuratua, eta benetako argia ikusten uzten ez duen. Protagonistek, kasu honetan Trumanek, pentsatuko dute hasierako eta berehalako argi hori dela ezagutzaren pareko, baina hain zuzen ere, argi faltsu horren benetako natura iruzurtiaz konturatuko dira eta benetako argiranzko bidea (ezagutzaranzko bidea) hasiko dute.

21. Irratiko esatariek esaten diote hegazkin batek matxura izan duela eta hegazkinaren parte dela lurrera erori den fokua.

### 3.3. Ispiluaren presentzia pelikulan zehar

Argia ispilurekin ere lot daiteke, biek laguntzen dutelako aurrean duguna ikusten. Biak dira ikusmenarekin lotzen diren bi eite. Beraz, atal honetan ispilua presentziaz eta garrantziaz mintzatuko gara. Izan ere, Truman askatu ahal izateko ispilua, eta ispilua jolasak, berebiziko garrantzia hartuko du.

Ispilua errealitatea islatzeko balio duen gailua da eta, pelikulan ere, funtzio hori du: Trumanen bizitza islatzea. Izan ere, *Trumanen Show*-ean, ispilua kamerak dira. Lehen eszenan eta azken eszenetan Truman ispilua aurrean ikusten dugu: bera ez da konturatzeko, baina kamera baten aurrean dago hortzak garbitzen. Trumanek jolastu egiten du kameraren aurrean; antza, publikoari izugarri gustatzen zaio ikusiak izan gabe ikustea!

Egunero errepikatzen duen ohitura da. Ispiluari hitz egiten dio inork ikusiko ez balu bezala, bere ameskerietan murgildurik eta umekerietan ikusten dugu; ustez intimitatean, baina, egia esan, denok ikusten dugu ispilua bestaldetik Trumanek goizero egiten duena, bai pelikula barruko ikusleek, bai pelikula kanpoko ikusleek.

Ispilu mota horrek Trumanen bizitza bere originaltasunean erakusten digu. Horregatik da hain berezia telesaila, egia bere horretan ikus daitekeelako, edo hori da, bederen, zuzendariak dioena; pantailak, gainontzeko telesailetan ez bezala, errealitatearen ispilua egiazkoak dira, ez egiantzekoak.

Apurka-apurka, ordea, ispilua aurrean egonda bizi duen zorientasuna apurtzen hasiko da, filmean zehar ikusten diren gertakari arraro batzuk direla medio<sup>22</sup>. Bere zorientasun eta babes-sentsazioen apurketa nabaria izango da Trumanek Seahaven utzi eta Sylviaren bila joan nahi duenean, Fiji irlan dagoelakoan. Saiakera bat baino gehiago egiten ditu eta ez du ihes egitea lortzen: dela hiriko errepidea mozten dutelako, dela sute bat sortzen delako berak hartu behar duen errepidean, etab. Marlon lagun minari bere susmoak aitortzen dizkio eta horrek gezurtatu egiten dizkio; baina Trumanek jada ez du hain inuxenteki sinisten; ez du lagunaren edo senitartekoaren autoritatean sinisten. Beraz, egun batean, Seahaven benetan abandonatzeko kuraia hartzen duenean, beti egiten dituen txorakeriak egiten ditu ispilua aurrean, kamerek eta zuzendariak ezer arrarorik nabari ez dezaten. Hala ere, oso sutila den aldaketa bat egiten du bere betiko mugimenduetan: ispilua aurrean jolastu ostean, honela esaten du: «Hau doakoa izan da»<sup>23</sup>. Goiz horretatik aurrera Trumanek «betiko Truman» izaten jarraitzen du ikusleentzat, baina jada bera antzezten ari da: gezurra esaten hasten da eta iruzurra egiten die zuzendari eta errealizatzaileei, bakarrik horrela lortuko duelako susmopetik at egotea eta bere ihesa aurrera eramatea. Hau

---

22. Esanguratsuenak aipatzearen; autoan doa eta akats tekniko baten ondorioz, autoa irratian bere mugimendu guztiak entzun ditzake. Gero, hondartzan dagoela, euria egiten hasten da, baina euria egiteko makinak arazo bat du eta euria soilik bere gainean egiten du. Harridura horren aurrean, Truman bi pauso mugitzen da alde batera, eta euri-jasak «jarraitu» egiten dio. Beste bi pauso ematen ditu beste aldera eta euri-jasak, berriz ere, «jarraitu» egiten dio. Hala ere, gertakari esanguratsuenak aitaren berragerpena programan (bera gaztetxo zenean itsasoan «hil» zen) edota emaztea mehatxatu ostean (geroz eta susmo handiagoak dituen, hari informazioa atera nahi diolako) emaztea ezkutuko kameretara zuzentzen denean: «Norbaitek salba nazala! Hau ez da profesionala!».

23. «Ésto ha sido gratis».

da, egiazko sentimenduak ezkututzen dituenen eta denok beraz espero dutena egiten hasten denean, kamerari gezurra esaten dionean, Truman izateari uzten dionean... Orduan izango da aske.

Hala, kamerak despistatzea lortzen du eta itsasontzi batean sartzen da itsasoaz bestalde zer dagoen jakiteko asmoz eta Sylviarekin aurkitzeko asmoz. Hasiera batean asko kostatzen zaie Truman aurkitzea. Halako batean, aurkitzen dutenean, zuzendariak ekaitz izugarria sorrarazten du itsasoan Trumanek ideiaz alda dezan eta etxera bueltatu dadin. Trumanek, ordea, ez du atzera egiten eta ia hiltzear dagoela ematen duenean, zuzendariak ekaitza eteten du, Trumanek irabazi duela aditzera emanez.

Beraz, pasarte horrek erakusten digu Truman zoriontsu dela ezjakina den bitartean edo, hobeto esanda, ezjakina ez dela pentsatzen duen bitartean. Hala ere, filmak aurrera egin ahala, bizi den errealitate perfektu horretan akatsak ikusiko ditu eta hortik abiatuko du Seahavenetik (kobazulotik/paradisutik) irteteko bidaia. Noiz hasiko da askea izaten? Bada, paradoxikoa badirudi ere, kameraren aurrean interpretatzen hasten denean, hau da, aktore-lanetan hasten denean, hasiko da benetako gizon bat bilakatzen.

#### 4. Argiaren metafora pelikulan zehar

Javier Aparicio irakasleak adierazi moduan (2013: 28) eta, aurretik beste askok defendatu moduan (Steiner eta Bloom, besteak beste), egun artea eta literatura existitzen dira tradizioa dugulako eta harekin jolasten ikasi dugulako<sup>24</sup>: tradizioko obrak itzultzen, errebisatzen, berrinterpretatzen, parodiatzen, plagiatzen, simulatzen, pasticheak egiten, mistifikatzen, iraultzen, kontraktzen eta guztiz ukatzen ere (modu negatiboan bada ere, tradizioarekin hartu-emanaren ondorio izango liratekeelako). Ez dago obrarik, berritzaile eta apurtzaile izanagatik ere, tradizioarekin harremanik ez duenik. Datorren atalaren helburua, beraz, pelikula honek tradizioarekin zer hartu-eman izan duen ikertzean datza.

##### 4.1. Argiaren metaforaren interpretazio grekoaren eragina

Ugariak izan dira pelikularen eta Platonen haitzuloaren alegoriaren arteko harremana adierazi dutenak (besteak beste, Gilabert, 2004). Nahiz eta Peter Weirrek, pelikulako zuzendariak, aitortu duen ez zuela Platonen alegoriaren aktualizazio bat egiteko asmorik, ukaezinak dira pelikularen eta alegoriaren artean dauden paralelismoak, Gilabertek ohartarazi moduan:

No es en absoluto insensato aprovechar *The Truman Show* para, *mutatis mutandis*, continuar abriendo los ojos a un necesario viaje iniciático, secular y universal, que va de la oscuridad a la luz, y gracias al cual generaciones y generaciones de hombres y mujeres han podido y pueden dejar de ser prisioneros —*lato sensu*, una vez más— para convertirse en ciudadanos libres y maduros (2004: 4).

---

24. Filosofian ere antzeko zerbait gertatzen dela esango nuke: autoreek euren aitzindariekin hartu-emanen sortzen dituzte teoria berriak; dela aurrekoa kritikatzuz, dela interpretatzuz, dela interesatzen zaiena moldatuz.

Has gaitezen, bada, pelikulako elementu desberdinak antzinateko ikuspegiarekin edota, zehazkiago, Platonen ikuspegiarekin erkatzen. Haitzuloan argia egon badago, Trumanen Paradisuan lez. Era berean, haitzuloan eroso eta babesturik bizi dira, Trumanen herrian lez. Baina argi horren natura artifizia da, ez da benetakoa, eta babes eta erosotasun horiek, aldiz, egiaren, askatasunaren eta zoriontasunaren kontrakoak. Halaber, Platonentzat Eguzkiaren argia, hau da, haitzulotik at dagoen argia, izango litzateke benetako ezagutzaren adierazle; Trumanek ere platoko argi artifizialeatik kanpo aurkituko du egia<sup>25</sup>.

Beraz, ezagutzarako bidean bi argi mota aurkituko genituzke bai Platonen haitzuloan bai *Trumanen Show*-ean: lehena, artifizia baina aldi berean eroso dena (sua eta fokuak, hurrenez hurren), zeinak benetako egia ezkututzen duen. Bigarrena, argi naturala (Eguzkia), bide malkartsu baten ondorioz eskuratzen dena, aurrekoaren izaera faltsua agerian utziko lukeena eta egiazko errealitatea erakutsiko lukeena. Kobazulo barruko argia artifizia da, barnean dagoen suak eragiten duelako (eta sua norbaitek sortua da, ez da naturala, bistan denez). Beraz, Trumanen munduan argia fokuek eragiten duten modu berean, kobazulo barruan norbaitek pizturiko suak eragiten du eta gatibuek ikusten duten irudi oro iruzurra besterik ez da, Trumanek ikusten duen guztiaren antzera.

Halaber, haitzuloaren alegorian bezalaxe, askatzea lortzen duena beldur da Eguzkiari begiratzeko, pentsatzen baitu haren kontenplazioak min ematen duela. Izan, Trumanek egiari begiratzeko saihestu izan du denbora luzez, egia ezagutzaren beldur delako. Gogoratu Christophék esaten duena: «Trumanek gutxieneko kuraia eta nahia izango balu, egia ezagutzeko erabakimen irmoa hartuko balu, Seahaven utziko luke. Uste dut, azken finean [...], Trumanek nahiago duela bere kaiola erraldoia».

Antzekotasunekin jarraitze aldera, uste dut garrantzitsua dela alegoria honen bitartez Platonek lortu nahi zuen helburuetako bat azpimarratzea. Izan ere, alegoriak *doxaren* eta *epistemearen*, hau da, iritziaren eta zientziaren arteko desberdintasuna azaltzeaz haratago, Platon herrikideei mintzatzen zaie helburu pedagogiko batekin. Izan ere, alegoriako kobazuloa Atenaseko herriaren irudia izango litzateke, eta kanpora ateratzea lortzen duena, aldiz, filosofoa litzateke. Herria iritziaren, faltsukeriaren edota engainuzkoa den errealitate batean murgildurik bizi da, eta, aldiz, filosofoa da errealitate horrekiko distantzia hartu eta errealitate horren naturaz itauntzeko gai dena. Alegorian kontatzen da, halaber, kobazulokoek ez dituztela kanpoan egon den presoaren kontuak entzun nahi, eta arraro eta bakarturik sentiarazten dute. Era berean, Truman ere egiaren bila abiatzen denean, bakarrik sentitzen da: egia-zantzuak ikusten hasten denean, emazteak, amak edota Marlon lagunak arraro, bakarturik eta are eroturik bezala sentiarazten dute. Filosofoa hirian nola, ez ulertua sentituko da Truman bere herrian. Beraz, Platonek

---

25. Azalpen horren baitan azal dezakegu Ediporen itsutasuna ere. Izan ere, adibidean ikus daiteke egiarako bidean argiaren bi esperientzia daudela: lehena, agerikoena dena, faltsua izango litzateke; are gehiago, gure itsukeria edo ezjakintasuna hauspotuko luke argi mota horrek (Edipok hasieran, begiekin ikus badezake ere, ez da egia ikustera iristen). Bigarrena, aldiz, bide malkartsu baten ostean aurki daitekeen argia da; lehena baino indartsuago eta mingarriagoa, baina azken finean, egiazkoa eta benetakoa da eta hasierako argitasun horren kontrakoa da.

alegoria honen bitartez bere garaikideak diren hiritarrak esnatu nahi zituen; beraien inguruan zabaldurik zeuden iritzi eta usteak albo batera utz zitzaten esaten ari zitzaien, egiaren alde egiteko. Pelikula honen helburuetako bat ere, horixe bera izan liteke: pelikularen garaikideak garen pertsonoi deiadar egitea eta gure gizartean zabaldurik dauden uste faltsuen aurrean begiak irekitzea: dela publizitatea, *reality show*, telezabor edo espektakuluaren gizarteak itsutzen duen jendea esnatu eta egiaren alde egitea, alegia.

Amaitzeko, Platonen teorian garrantzitsua den beste elementu baten erabilera mahaigaineratzea gustatuko litzaidake: Trumanen egiarekiko bidaia elementu jakin batek aktibatzen du: Sylviak, edo hobe esanda, Sylviarekiko erakarpen edo maitasunak (*eros*-ak, Platonen hiztegia erabiliz). Sylviari ematen dio bere bizitzako lehen musua eta Sylviak esaten dio engainaturik bizi dela<sup>26</sup>. Bi gertakari horien ostean kanporatu egiten dute Sylvia, Trumanengan lapurtu dioten horrekiko desioa hauspotuz. Gilabertek (2004: 9) esan moduan, Sylviareen urrutzeak zerbaiten hutsunea sorrazaziko dio Trumani eta maitasun-indar horrek, *eros*-aren indarrak, alegia, zeina Platonengan ere ezagutza ororen oinarrian dagoen<sup>27</sup>, egia ezagutzera eramango du Truman.

#### 4.2. Metaforaren interpretazio kristauaren eragina

Orain arte antzinateko greziarren eta, bereziki, Platonen oihartzunak aztertu dira. Jarraian, pasarte eta motibo biblikoen presentzia aztertuko da. Hasteko, Seahaven hiria aipatu beharko genuke, zeina paradisuaren bertsio bat izan litekeen. Esan bezala, ahalguztiduna (itsasoan ekaitzak sor ditzake eta eguna gau bihurtu) eta orojakilea (berak erabakitzen du norekin ezkonduko den, zer jan eta jantziko duen eta non egingo duen lan) den kreaizaileak Paradisu bat eraiki dio Trumani: Seahaven. Bertan ez du zertaz arduratu, ez du arriskurik; bertan, kanpoan ez bezala, mundua ez dago ustelduta; ez dago erru- edo lotsa-sentimendurik. Gainera, kolore positibo eta argitsuekin irudikatzen da Seahaven, hiri harmoniatsu eta lasai baten itxura emanetz. Hasiera batean pentsa liteke Paradisuaren ikuspegi positiboa helarazten duela filmak, eta pelikularen hasieran ere Trumanek hala bizi eta sentituko du, baina aurrera egin ahala ikuslea —eta beranduago baita Truman bera ere— konturatuko da Paradisu horrek kartzelatik ere baduela: ezin da bertatik irten, haren errutina aurretik markatua dago, ez da nahi dituen erabakiak hartzeko askea... Kasu honetan (eta ikertuko den hurrengo kasuan ere), Biblian positibotzat hartzen diren elementuak (Paradisua, Sortzailea) hemen kontrakoa adierazteko erabiltzen dira: paradisua egia estaltzen duten argi eta dekorazio artifizialen multzoa besterik ez da, egiazko bizitzatik aldenduko duena Truman. Beraz, nahiz eta hasiera batean Trumanek uste izan Seahaven Paradisuaren pareko hiria dela, pelikulak aurrera egin ahala Paradisu horrek ezkututzen duen ifrentzuaz ohartuko da: haren mugak itogarriak egingo zaizkio, bertan aurkitzen zuen harmoniak erotu egingo du eta kreaizailearen babesa egozten amaituko du. Finean, Paradisua kartzelaren pareko dela sentituko du Trumanek.

26. Honela esan zion: «Truman, escúchame. Todo el mundo sabe lo que haces. Hacен teatro, ¿entiendes? Todo es falso. Todo es un decorado para ti, el cielo y el mar. Todo es televisión».

27. Platon, *El Banquete* 200e: «¿No es éros en primer lugar amor —o deseo— de algo y, en segundo, de lo que pueda faltarle?», galdetzen dio Sokratesek Agaton-i.



Kristautasunaren eragina ere beste detaile batean ikus daiteke: Trumanek Santa Maria itsasontzian abiatzen du bere ihesa, inoiz sortu zioten hidrofobia gaudituz eta, jainkoaren borondatearen mende zegoen ekaitz izugarria bizi ostean, Santa Maria itsasontziak zeruaren mugarekin (platoko paretekin, zeinek zerua simulatzen duten) egiten du topo. Trumanek epifania bat bizitzen du orduan, bere ibiltzeko eta begiratzeko moduan igar daitekeen moduan. Epifania hori sortzailearekin hitz egiten duenean areagotzen da, gainera, azkenean, kreatzaileak egia errebelatzen dio: platotik ateratzeko eskailerak aurkitzen dituenean (pelikulako eszenarik ederrenetarikoa dena), hodei artetik eguzkia agertzen da eta ahots serio bat hizketan hasten zaio, errebelatutako ahotsa bailitzan. Christoph haren sorkuntzari mintzatzen zaio, Kristok Jesusi edo Moisesi hitz egin zien moduan.

**Christoph:** Truman: mintza zaitzake. Entzun zaitzaket.

**Truman:** Nor zara?

**Christoph:** Sortzailea naiz. Itxaropena, dibertsioa eta inspirazioa ematen duen programaren sortzailea naiz, eta zeu zara bertako izarra.

**Truman:** Ezer ez zen benetakoa?

**Christoph:** Bai, zu zinen benetakoa. Entzudazu, Truman: kanpoan ez duzu hemen baino egia gehiago aurkituko, gezur eta gaixotasun berdinak aurkituko dituzu bertan. Baina nik sortu dizudan mundu honetan ez duzu zertan arduratu. Zeure burua zuk zeuk baino hobeto ezagutzen dut nik.

**Truman:** Ez duzu nire buru barruan kamerarik!

**Christoph:** Beldur zara: horregatik ezin zara hemendik atera. Ongi da, Truman. Ulertzen zaitut. Zure bizitza osoa ezagutzen dut: jai zinenetik, eskolara joan zineneko lehenbiziko aldia, lehen hortza erori zitzaizunekoa... Ezin duzu alde egin, Truman. Sortu dizudan mundua dagokizu, nire alboan. Esadazu zerbait, arren. [Isilunea] Jainkoaren izenean, Truman, esadazu zerbait! Zuzenean gaude eta mundu osoa zure zain dago!

**Truman:** [isilunea] Gerora ez badugu berriz elkar ikusten: egun on, arratsalde on eta gabon!<sup>28</sup>

Iturri ilustratuarekin edota platonikoarekin gertatu ez bezala, non argiaren metaforaren jarraipen nahiko agerikoa ikusten den, pelikulak tradizio kristauarekin sortzen duen harremana bestelakoa da; izan ere, kasu honetan, kontakizunak eboluzio edo transkodemate bat pairatzen badu ere, haratago doa: tradizio biblikoak kontatzen duenaren eta erakutsi nahi duenaren kontrakoa adierazteko baliatu baita. Aipatu bezala, Paradisuaren irudia (eta beraz, baita haren esanahia ere)

---

28. «Christoph: Truman. Puedes hablar. Te escucho. /Truman: ¿Quién eres?/ Christoph: Soy el creador, de un show de televisión que da esperanza, diversión e inspiración a millones de personas. Tú ere la estrella./ Truman: ¿Nada era real?/ Christoph: Tú eras real. Por eso era genial verte. Escúchame, Truman: no hay más verdad ahí fuera que en este mundo que he creado para ti. Las mismas mentiras, mismas enfermedades. Pero en mi mundo, tú no tienes que temer nada. Te conozco mejor que tú./ Truman: ¡No tienes una cámara en mi cabeza!/ Christoph: Tienes miedo: es por eso que no puedes irte. Está bien, Truman. Te entiendo. Te he visto toda tu vida, desde que naciste, diste tu primer paso, en tu primer día de escuela, el episodio que perdiste tu primer diente. No te puedes ir, Truman. Perteneces aquí. Conmigo. Dime algo, habla conmigo. (isilunea) Por el amor de Dios, Truman, di algo, estás en vivo ante todo el mundo!/ Truman: En caso de que no te vea, buenos días, buenas tardes y buenas noches».

alderantzikatu egiten da eta Jainkoaren irudi babeskoi eta zaindaria ere (nahiz eta zentzu batean egia errebelatzen dion amaieran) itogarria eta jasanezina suertatuko dira Trumanentzat. Yehuda Moralyk ongi ikusi eta ikertu moduan (2011: 108-109), alderantzikatu egiten dira sistema kristauaren balio eta pertsonaiak: kasu honetan Paradisuak eta Kreatzaileak dimentsio negatiboa izango dute. Era berean, Jainkoaren argia ez da ezagutzaren bidearen seinale izango, Christophek ez baitio bere kreaturari egia esan nahi: ezkutatu egin nahi dio. Jainkoaren argiaren metafora, beraz, alderantzikatu egiten da balio negatiboak bereganatuz.

Ildo beretik jarraituz, balio positiboak alderantzikatzen diren gisa berean, Biblian negatibotzat ditugun elementuak askatasunaren adierazle positiboak izango dira: Sylviak gaizkiaren papera irudikatzen du Sortzailearen ustez, Truman bide onetik aldenduazten baitu, Evak Adan bide onetik aldendu zuen modu berean. Beraz, Silvyak Evaren edo sugearen papera irudikatuko luke, zeina Jainkoaren legearen aurka altxatzeko inolako erreparorik ez duen. Sylviak ere, Christophen erabakien aurka egiten du inolako beldurrik gabe:

**Sylvia:** Gezurti eta maneatzailer hutsa zara, eta Trumani egindakoa gaixo batek egin dezakeen kaltearen pareko da. Zer eskubide duzu jaioberri bat hartu eta haren bizitza adar-jotze hutsa bihurtzeko? Ez al zara sekula errudun sentitu?

**Christoph:** Trumani bizi-aukera bat eskaini nion, bizitza normal bat izateko aukera, alegia; zuk ezagutzen duzun mundua gaixo dago eta, aldiz, Seahaven izan beharko luke munduaren eredu.

**Sylvia:** Baina Truman ez da aktore bat! Truman preso dago! Begira zer egin diozun!

**Christoph:** Trumanek gutxieneko kuraia eta nahia izango balu, egia ezagutzeko erabakimen irmoa hartuko balu, Trumanek Seahaven utziko luke. Uste dut, azken finean, zu larritzen zaituena honako hau dela: Trumanek nahiago duela bere kaiola erraldoia, zuk deitzen duzun moduan<sup>29</sup>.

Aipatu bezala, Sylvia da Paradisua faltsua dela esaten diona eta bizi duen errealtatea fikzio hutsa dela esaten diona; finean, askatasunaren bidea erakutsiko diona. Hala, Truman sortzailearen kontra errebelatzen da Sylviaren «ziztada»ren ondorioz. Pelikulan, ordea, gertakari hori gaitzesgarria ez (tradizioak diotenari jarraiki), guztiz onuragarri eta txalogarri bezala irudikatzen da. Kasu honetan, bada, zoriona Paradisuan baino areago, askatasunean aurkitu du protagonistak.

### 4.3. Metaforaren interpretazio ilustratuaren eragina

Azkenik, argiaren metaforaren interpretazio modernoa aztertzea geratzen zaigu. Paralelismoa bilatzen hasteko, Christophek esandako zerbait birgogoratu nahi da:

---

29. «Sylvia: Es usted un mentiroso y un manipulador, y lo que ha hecho con Truman es enfermizo. ¿Qué derecho tiene usted a disponer de un recién nacido y convertir su vida en una especie de broma. ¿No se siente culpable? / Christoph: (mueve la cabeza diciendo que no) Le di a Truman la oportunidad de vivir una vida normal, el mundo en el que usted vive es un lugar enfermizo, Seaheaven es como debería ser el mundo. / Sylvia: ¡No es un actor! ¡Es un prisionero! ¡mire lo que ha hecho! / Christoph: Truman puede irse cuando quiera, si tuviera algo más que una vaga ambición, si estuviera decidido a saber la verdad no podríamos impedirselo de ningún modo. Creo que lo que la angustia en última instancia es que Truman prefiere su celda, como lo llama usted».

Trumanek gutxieneko kuraia eta nahia izango balu, egia ezagutzeko erabakimen irmoa hartuko balu, Seahaven utziko luke. Uste dut, azken finean [...], Trumanek nahiago duela bere kaiola erraldoia.

Christophek esan bezala, Truman ez da ausartzen egia jakitera. Programako zuzendariak eta errealizatzaileek ez diote trabarik jarriko, dio; izan ere, benetan nahiko balu, ihes egingo luke eta egiaren alde borrokatuko litzateke (azkenean egiten duen bezala). Pasarte honek zuzenean garamatza Kanten *Zer da Ilustrazioa?* obrari hasiera ematen dioten hitzetara:

Ilustrazioa da gizakiak berak eragindako heldugabetasunetik irtetea. Heldugabetasuna da beste norbaiten laguntzarik gabe bakoitza bere ulermena erabiltzeko gai ez izatea. Heldugabetasun hori norberak eragiten du, horren kausa ez denean ulermen gabezia, baizik eta beste norbaiten laguntzarik gabe erabiltzeko kemen eta kuraia falta. «Sapere aude!» «Izan ezazu kuraia zure ulermena erabiltzeko!», hori da, hortaz, Ilustrazioaren lema (2005: 7).

Trumanen kasuan ere, inork ez dio kate fisikorik ipintzen; bera da, nolabait, besteen autoritatea onartu izan duena: kasu honetan ez da eliza ez eta armada ere, haren ama (zeinak aitaren heriotza sinetsarazten dion une oro), haren emaztea Meryl (zeinak Seahaven abandonatzeko ideia txarra dela esaten dion uneoro), haren laguna Marlon (zeinak Trumanek bere susmoak aitortzen dizkionean halakoak txorakeriak besterik ez direla esaten dion) eta beste hainbeste izan daitezke autoritate itsuaren irudi. Nahiz eta Trumanek Sylviaren hitzak gorde, ez da horiek sinisterra ausartzen, ez da gai ulergaitzak diren gertakariak (fokuak zerutik erortzea, bere ingurukoek beti bide bera egitea, hiritik atera nahi duen bakoitzean arazo tekniko bat dela medio ezin egin ahal izatea...) bere kabuz ulertzen saiatzeko, arrazoia erabiltzeko, alegia. Nahiago du, hasiera batean bederen, eroso bizi kuraia eta kemena erabili baino.

Hala ere, pelikulak aurrera egin ahala, Trumanek kuraia eta kemena berreskuratuko ditu: itsasoari zion beldurra gaudituko du, bere bizitza arriskuan jarriko du edota apenas ezagutzen duen emakume baten alde egingo du maite dituen guztien gomendioei kontra eginez. Nolabait esatearren, jarrera ilustratua hartuko du bere errealitatean ulertzen ez dituen, alegia, ilunak diren pasarteak ulertzen saiatzeko. Azkenean, gainera, ilustratuek bere garaian nola, Trumanek ere «Jainkoak» errebelatzen duen egiaren aurka egingo du; Christophek berarentzat sortu duen sistema soziala zalantzan jarriko du (zeina, bide batez, Trumanek ezin azal zitzakeen misterioz beterik zegoen) eta bere arrazoia jarraiki, benetako askatasuna lortuko du, Jainkoaren edo bere sortzailearen mugetatik haratago.

## Ondorioak

Antzinateko Greziara jo dut lehenik egiaren bilaketa nola irudikatzen zuten jakiteko. Orokorrean, egia argiarekin erkatu izan zuten. Hori erakusten digute, besteak beste, Aristotelesek, tragedia grekoek (*Edipo Errege* obrak, zehazki) baita Platonek ere. Azkenean horren haitzuloaren alegoria sakonago landu nahi izan da argiaren metafora modu nabarmenean ageri zelako kontakizun horretan. Jarraian, iturri kristauak argiaren metafora nola erabiltzen zuten aztertu nahi izan

da. Horretarako, San Agustinek eta Eskritura Santuek metaforari egiten zizkioten erreferentziak aurkeztu dira, garai hartan metaforak izan zuen aldaketa azpimarratuz (argia egiaren irudi ez ezik, Jainkoaren izaera babeslearen irudi ere bihurtu zen). Azkenik, modernitatean eta batez ere Ilustrazioan argiaren metaforaren indarra eta garrantzia agerian utzi nahi izan dira.

Ibilbide labur horren ostean, pelikulako hainbat elementu, pertsonaia edota eszena ikertu dira. Horren helburua honako hau izan da: pelikula zeharkatzen duten hainbat gai garrantzitsu mahaigaineratzea, zeinak ezinbesteko diren hurrengo atalean konparaketa-lana egiteko. Aztertutako elementuen artean, protagonisten izenak eta leku-izenak (pelikulan betetzen zuten funtzioa ulertzeko ezinbesteko direnak), argiari zuzenean erreferentzia egiten zioten eszenak eta elementuak daude.

Azkenik, konparaketa-lan bat garatu da 2. puntuan azaldu diren iturri filosofikoak eta 3. puntuan azaldu diren pelikulako elementu, eszena eta pertsonaiak erkatuz: horri esker, aztertu diren hiru iturri historiko eta filosofikoen eragina nabarmendu nahi izan da.

Ibilbide filosofiko eta zinematografiko honek, bada, alde batetik, tradizioaren eta sorkuntza garaikidearen arteko loturari buruz hausnartzeko parada eskaini digu. Erakutsi digu gizakia aspalditik arduratu duen gai literario eta filosofiko honek, hau da, egiaren bilaketa pertsonala, oraindik ere bizirik dirauela eta oraindik balio duela garaian garaiko gizabanakoaren emantzipazioaren etsaiak diren elementuak (pelikula honen kasuan bideo-bigilantziak kontrolatutako bizitza, *reality show*, telezabor, publizitate eta telebista-programa narkotizatzaileak) kritikatzeko. Finean, lan honen bitartez erakutsi nahi izan da tradizioaren eta berritasunaren artean zubiak, gurutzaketak eta hartu-emanak elikatu eta aberasten dutela obra baten sorkuntza (bai eta haien errezepzioa ere).

Beste alde batetik, pelikula honek gizakia bezain zaharra den borroka baten berri ematen digu: jakinduriaren eta ezjakintasunaren arteko borroka, argiaren eta ilunaren arteko borroka, egiaren eta faltsuaren arteko borroka, bizitza eroso eta akritikoaren eta bizitza aktibo eta kritikoaren arteko borroka... Finean, gizartean zabaldu dagoen umekeriaren eta inozokeriaren aurka altxatzen den pertsonaren istorioa da pelikulan kontatzen dena.

## 6. Bibliografia

- Aparicio Maydeu, J. (2013): *Continuidad y Ruptura. Una gramática de la tradición en la cultura contemporánea*, Alianza, Madril.
- Chantraine, P. (1968): *Dictionnaire étymologique de la langue grecque. Histoire des mots*, Éditions Klincksieck, Paris.
- Descartes, R. (1990): *Méditations métaphysiques*, Le Livre de Poche, Paris.
- Elizen arteko Biblia*. Online edizioa, <<https://www.bible.com/es/bible/56/EPH.5.EAB>> [2020/04/09an kontsultatua].
- Ferrater Mora, J. (1951): *Diccionario de filosofía. Tomo II*, Editorial Sudamericana, Buenos Aires.

- Ferrer Ventosa, R. (2017): «Mundo Disneylandia. Retratos de la sociedad como parque temático en las series y el cine», *Fedro: revista de estética y teoría de las artes*, 17, 61-79.
- Gilbert, P. (2004): «Rutas cinematográficas hacia la imagen platónica de la caverna», *Estudios clásicos*, 126, 59-95.
- Gómez Montoro, G. (2010): «El Show de Truman desde la perspectiva de la literatura y la teoría de la información comunicación», *Revista de estudios filológicos*, 19, 1-17.
- Kant, I.; Burke, E.; Volney eta Condorcet (2005): *Pentsamendu ilustratua. Idazlan hautatuak II* (itzulpena: Haritz Monreal), Klasikoak bilduma, Bilbo.
- Moraly, Y. (2011): «Il serpente come Messia. Rappresentazione alla rovescia del Paradiso nel teatro e nel cinema del XX secolo», *Altre Modernità: Rivista di studi letterari e culturali*, 1. Zenbaki gehigarria, 105-110.
- Platon (2004): *Diálogos III* (itzulpena: C. García Gual, M. Martínez Hernández, E. Lledó Íñigo), Gredos, Madril.
- , (2006): *República* (itzulpena: C. Eggers Lan), Gredos, Madril.
- San Agustín (1963): *Obras de San Agustín*, Biblioteca de Autores Cristianos, Madril.
- Sofokles (1982): *Tragedias* (itzulpena: A. Alamillo), Gredos, Madril.
- Stanford Encyclopedia of Philosophy (2017): *Enlightenment*, <<https://plato.stanford.edu/entries/enlightenment/>> [Kontsulta: 2020/04/10].
- Torregrosa, M. eta Cuevas, E. (2010): «El Show de Truman. Estrategias metaficcionales y quiebras del simulacro», *Área Abierta*, 25, 1-15.

